


ONLINE ZUZENEAN- Adimen artifiziala euskararen erabilera-planetan: aukerak, erronkak eta esperientziak



Urr. 21 2020

Kod. X52-20

Mod.:

Online zuzenean

Edizioa

2020

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Urr. 21 2020

Kokalekua

Online zuzenean (ZOOM)

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Adimen artifizialak hizkuntzan izaten ari den garapen disruptiboa eraldaketa handiak ekarriko ditu. Berrikuntza teknologikoen norabidea ongi zehaztea da euskal gizarteak duen erronka handienetako bat, izan ere, aukera handiak ekarri ditzake gizarte-berrikuntzaren alorrean, eta zehazki euskararen garapen-prozesuan. Esaterako, adimen artifizialak eta hizkuntza-teknologiek orain arte pentsaezinak ziren aukera ekarri ditu enpresa eta erakundeen hizkuntzen-kudeaketan nahiz euskararen erabilera areagotzeko estrategietan. Honenbestez, teknologiaren aurrerapenak barneratu, aplikazio-eremu berriak bilatu eta kasu arrakastatsuak ezagutzea berebiziko garrantzia du arlo honetan lanean dabiltzan ikertzaile, aholkulari, kudeatzaile eta ikasleentzat.

Helburuak

Adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiaren aurrerapenak barneratzea.

Aplikazio-eremuak berriak bilatu eta aukera identifikatzea.

Kasu arrakastatsuak ezagutzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2020-10-21

09:00 - 09:20	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Josu Aztiria Urtaran Elhuyar - Elhuyar Fundazioan adimen artifiziala hizkuntzan unitateko koordinatzailea
09:20 - 10:00	“Adimen artifiziala hizkuntzan: aukerak eta erronkak” Xabier Arregi Iparragirre UPV/EHU - UPV/EHUko IXA Taldeko koordinatzailea Joseba Laka Mugartza Tecnalía - ICT Dibisioko zuzendaria Sebastian Zurutuza Mujika Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa Estrategikoko zuzendari nagusia
10:00 - 11:00	“Adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiak udal administrazioan erabileraren akuilu” Juanjo Pérez Martínez de Lahidalga Elhuyar Fundazioa - Eremu publikoan euskara-planen koordinatzailea Anuska Esnal Oliden Orioko Udala - Orioko alkatea Itziar Cortés Etxabe Elhuyar Fundazioa - Elhuyar Fundazioan Hizkuntza eta Tekologia unitateko koordinatzailea Igor Leturia Azkarate Elhuyar Fundazioa - Hizketa-teknologiaren koordinatzailea
11:00 - 11:15	Atsedena
11:15 - 12:15	“Testuen meatzaritza, Big Data eta euskararen erabileraren neurketa: BigDatz proiektua” Josune Zabala Alberdi Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria Maddi Etxebarria Bilbao Elhuyar Fundazioa - Elhuyar Ahokularitzako koordinatzailea eta eremu pribatuan euskara planen arduraduna Jesus M. Amasorrain Lizarralde Elay Taldea - Elay Taldeko Ingeniaritza arduraduna eta Euskara Batzordeko kidea Xabier Saralegi Urizar Elhuyar Fundazioa - Testuen meatzaritzako zuzendaria
12:15 - 12:30	Sintesia

Zuzendaritza



Josu Aztiria Urtaran

Elhuyar Fundazioa

Humanitateak-enpresa lizentziatuta. Bi master ditu kudeaketan: Antolamendu eta kudeaketa aurreratuan; eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeen kudeaketa. Elhuyar Fundazioan Adimen Artifiziala unitateko zuzendaria da, eta adimen artifiziala eta hizkuntza-teknologiekin lotutako I+G proiektu nagusien koordinatzailea. 4 urte eman ditut Hizkuntza eta Teknologia unitateko zuzendari bezala Elhuyarren, 7 urte Elhuyar Fundazioko Hizkuntza Zerbitzuak saileko arduraduna izan da eta 3 urtez Donostiako Ilazki Euskaltegiko zuzendaria Elhuyarreko zuzendaritza-talde kidea da eta Euskal Herriko Hizkuntzen Industria biltzen duen Languneko zuzendatzitzako kidea ere bada.

Irakasleak



Jesus M. Amasorrain Lizarralde



Xabier Arregi Iparragirre

Usurbilgo alkate ohia eta IXA-UPV/EHU ikerketa-taldearen koordinatzailea

Xabier Arregi Iparragirre Informatikan doktorea da 1995az gero Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun, unibertsitate horretako Lengoaiak eta Sistema Informatikoak saileko irakasle agregatua da. Informatikako graduan eta HAP-LAP masterrean jardun ohi da irakasle. EHUKo IXA ikerkuntza-taldeko (<http://ixa.si.ehu.eus/>) eta HiTZ: Hizkuntza Teknologiako Euskal Zentroko (<http://hitz.eus/>) kide da. Ixa taldearen koordinazio-lanak ere egiten ditu. Hizkuntzaren Prozesamendura bideratu du ikerkuntza-lana, eta batez ere honako alorretan aritu izan da: Semantika Lexikala, Lexikografia Konputazionala, Korreferentzien Ebazpena, eta prozesamendu semantikoaren aplikazioak Informazioaren Berreskurapenaren eta Galderak Erantzuteko Sistemen arloan. Lan horiek Euskararen Prozesamendura bideratu dira nagusiki. Errebisioa gainditu duten ehun artikulua inguru ditu argitaratuak nazioarteko aldizkarietan eta kongresuetan. Hainbat ikerketa-proiektutan hartu du parte, nola herrialde edo nazio mailakoetan hala



Itziar Cortés Etxabe

Elhuyar

Informatika Ingeniaritzako lizentzia (EHU, 2009) eta Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua masterra (EHU, 2011) ditu. 13 urte daramatza Elhuyarren lanean, hizkuntza-teknologiaren alorrean. Gaur egun, Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia unitateko koordinatzailea da.



Anuska Esnal Oliden



Maddi Etxebarria Bilbao

ELHUYAR-ZUBIZE, S.L.U



Joseba Laka Mugartza

Gaur egun, ikertzaile eta teknologo talde zabal bat zuzentzen dut Tecnalian, teknologia digitalak enpresen lehiakortasunerako baliabide bihurtzeko eta gizartearen gaitasun digitalak hobetzeko erronkarekin. Teknologia horiek zerikusia dute sistemen bizi-zikloarekin, gauzen Internetekin, zibersegurtasunarekin, errendimendu handiko arkitekturekin, elkarreragin aurreratuarekin, plataforma digitalekin eta, jakina, adimen artifizialarekin. 25 urteko esperientzia dut industria digitalean, eta urte horietako 10 telekomunikazioen sektorean lan egin dut hainbat tokitan (batez ere Europan eta, neurri txikiagoan, Asian).



Igor Leturia Azkarate

Elhuyar Fundazioa

Erreterian bizi den arrasatearra da, informatikako eta elektronikako ingeniari itza ikasketak ditu (Mondragon Unibertsitatea eta Université Paul Sabatier, Toulouse) eta doktorea da hizkuntza-

teknologietan (Euskal Herriko Unibertsitatea). Elhuyar Fundazioan egiten du lan hizkuntza-teknologien I+G unitatean, non aurretik ikertzaile, proiektu arduradun eta unitateko arduradun izan den. Egun, bertako hizketa-teknologien saileko arduraduna da. Informatika, ofizioaz gain, afizio ere badu, komikiekin batera, eta bi gai horiei buruz idazten du bere blogean eta zenbait mediotan; informatikari dagokionez, software librea, deszentralizazioa eta burujabetza teknologikoa gisako gaiak landu ohi ditu.



Juanjo Pérez Martínez de Lahidalga



Josune Zabala Alberdi

Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaria Eusko Jaurlaritzan. Euskal Filologian lizentziatua (EHU, 2002), Hizkuntzen aditu titulua eskuratua (Mondragon Unibertsitatea, 2005) eta Euskal ikasketetan doktorego programa eta ikerketa gaitasuna burutua (EHU, 2008). Lan ibilbidean, euskara eta bere irakaskuntzaren alorra landu du, batez ere: helduen euskalduntzean euskara irakasle eta trebatzaile (AEK eta udal euskaltegiak, 1999-2004); Euskara Biziberritzeko planetan aholkulari (Azpeitiko euskara patronatua, 2004-2005), eta Mondragon Unibertsitatean irakasle (HUHEZI fakultatea, 2004-2008 eta 2012-2014). Ikerketari dagokionez, HIJE taldeko (Hizkuntzaren jabekuntza eta erabilera) eta Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza saileko partaide ere bada, eta Soziolinguistika Klusterrean ahozketasunari buruzko ikerketa eta formazio ezberdinak gauzatu ditu. Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendari lanetan dihardu egun Eusko Jaurlaritzan.



Xabier Saralegi Urizar



Sebastian Zurutuza Mujika

Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Guipúzcoa

Cargo: Director general de Estrategia de Gestión. Estudios: Licenciado en Ciencias Económicas y Empresariales (Especialista Universitario en Administración Pública de la EHU/UPV). Idiomas: euskera (alto); castellano (alto); inglés (medio). Trayectoria profesional y política: - Jefe de Servicio de Compromisos Institucionales. Diputación Foral de Gipuzkoa (1993-2015). - Jefe de Sección de Cupo y Aportaciones Financieras. Diputación Foral de Gipuzkoa (1992-1993). - Profesor Asociado. EHU-UPV (Facultad de Derecho) (1988-1994). - Economista. Diputación Foral de Gipuzkoa (1987-1992). - Profesor. Formación Profesional (Elgoibar y Usurbil) (1982-1987).

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2020-10-21 ARTE
OROKORRA	37,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	31,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	20,00 EUR
ELKAR txarteldunak	31,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	31,00 EUR

Kokalekua

Online zuzenean (ZOOM)

Online zuzenean (ZOOM)